

Prestakuntza PLANAREN KUDEAKETA - Prestakuntza ematen edo jasotzen duten barneko langileentzako informazio-klausula	
DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA	
Arduraduna	Nor arduratuko da zure datuak tratatzeaz? EJIE SA IFK: A01022664 Posta-helbidea: Mediterraneoaren hiribidea 14, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba Telefonoa: 945 017 300 Helbide elektronikoa: ejie@ejie.eus Datuak Babesteko Ordezkararekin harremana izateko, idatzi helbide honetara: dpd@ejie.eus
Helburua	Zertarako tratatzen ditugu zure datuak? <p>Borondatezko prestakuntzarako eta euskararen prestakuntza-planean eta hizkuntza-eskakizunen prestakuntzan ikasteko konpromisoa hartzeko beharrezkoa den informazio pertsonala kudeatzea.</p> <p>Erakundeak barneko langileentzat eskaintzen dituen prestakuntza-planak kudeatzea.</p> <p>EJIEk antolatzen dituen prestakuntza-jardueretan izandako parte-hartzearen erregistroa, kudeaketa, kontrola eta jarraipena.</p> <p>Prestakuntza-saioak grabatzea, horiek erabiltzeko eta barne-zabalkundea egiteko. Grabazioetara sarbidea duten pertsonen jakinarazten diegu kanpoan zabaltzea erabat debekatuta dagoela.</p>
Legitimizazioa	Zerk legitimatzen du zure datuak tratatzea? DBEO: 6.1.b) EJIEren eta barneko langileen arteko lan-kontratua gauzatzeko beharrezko tratamendua.
Hartzaileak	Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak? Identifikazio-datu pertsonalak, hala badagokio, prestakuntzarako laguntzak kudeatzen dituzten erakundeei jakinaraziko zaizkie.
Datuak gordetzea	Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak? Tratamendu honen esparruan tratatzen diren datu pertsonalak 10 urtez gordeko dira.
Eskubideak	Zein eskubide dituzu guri datuak eman ostean? <ul style="list-style-type: none"> • Edozein pertsonak dauka eskubidea ziur jakiteko ea EJIE SA berari buruzko datu pertsonalak tratatzen ari den.

	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, bai eta zehatzak ez diren datuak zuzen daitezela eskatzeko ere, edo, hala bada gorkio, datuak ezabatu daitezela eskatzeko, besteak beste datu horiek dagoeneko ez badira beharrezkoak jaso ziren helburuetarako. • Kasu jakin batzuetan, pertsona interesdunek aukera dute beren datuen tratamendua muga dadila eskatzeko. Mugatzea eskatuz gero, erreklamazioak egin edo erreklamazioen aurrean babesteko soilik gordeko ditugu. • Kasu jakin batzuetan, eta pertsona interesdunen egoera bereziren batekin lotutako arazoien ondorioz, interesdunek aukeran izango dute beren datuak tratatzerik ez dutela nahi adierazteko. Hala eginez gero, EJIE S.A.-k datu horiek tratatzeari utziko dio, nahitaezko legezko arazoia ez badaude edo erreklamazioak gauzatu edo erreklamazioen aurrean defendatzeko ez bada. • Interesdunek EJIE SArI eman dizkioten datuak beste norabait eramateko moduan jartzeko eskatzerik badute, edonork erabiltzeko moduko eta mekanikoki irakurtzeko moduko formatu egituratu batean, haiek deskargatzeko edo EJIE SAtik beste erakunde batera bidaltzeko. • Eskubideak gauzatzeko, mezua bidali beharko dute lop-d-ejie@ejie.eus honako helbide honetara, NANaren kopia bat edo nortasuna egiaztatzeke beste agiri baliokideren bat ere gehituta. <p>Gainera, eskubideak behar bezala baliatzerik ez baduzu izan, aukera izango duzu erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Agentzian, batik bat, www.aepd.es orrialdean adierazitako posta-helbidean edo helbide elektronikoan.</p>
SEGURTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Datuak konfidentziasunez tratatuko ditugu, eta antolaketa-neurri tekniko egokiak baliatuko ditugu datuok tratatzeko, ez daitezen aldatu, galdu edo beste nolabait tratatu eta inork ez ditzan baimenik gabe eskuratu.